

Donostian, 2019ko uztailaren 19an

## UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

### TURISMO TASARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, OGASUN BATZORDEAn tasa turistikoari buruz interpelazioa egin ondoren.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostiak ikusi du nolako bilakaera izan duen bere ekonomiak azken urteotan, zerbitzuen sektoreak pisu erabakigarria baitu udal ekonomian, turismo sektorea garatzearen aldeko apustu baten ondorioz. Batetik, gaudiak igo egin dira, eta, bestetik, bisitarien kopuruak gora egin du; ondorioz, zerbitzu gehiago behar dira, eta, ondorioz, kostua handitu egiten da, eta herritar guztiek lepoan hartu behar izaten dute kostu hori. Zerbitzu horiek eskaintzen jarraitzeko diru sarrerak lortu beharrak azterketak eta eztabaidak eragin ditu azken urteotan.

Ildo horretan, 2015. urteaz geroztik, joan den legealdiaren hasieran, Irabazi Donostiako kideek hirian "tasa turistikoa" ezartzea eskatu zuten, hirirako oinarrizko zerbitzu publikoetan turismoak eragindako gastuak konpentsatu ahal izateko. Hondakinen bilketa, mantentzea eta garraio publikoa dira turismotik etorritako biztanle kopurua dela eta, jarduera eta erabilera gehikuntza handiena izaten duten hiru zerbitzuak, herritarrek beren gain hartu behar dituztenak.

EAJk eta PSEk hasieran ezezkoa eman ondoren 2015ean, pixkanaka-pixkanaka beste norabide bat hartu zuen udal Gobernuaren jarrerak eta aipaturiko tasa hori ezartzearen alde agertu zen, Europako hiri askotan gertatzen den bezala.

Urte hauetan, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia pilota teilatu batetik bestera botatzen ibili dira, eta alorrean ez dute inolako aurrerapausorik eman. Milioika euro utzi dituzte diru kutxa publikoan sartu gabe eta azkenik, Donostiako herritarrek hartu behar izan dute lepoan zenbateko hori.

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburu berriak hedabideetan hainbat adierazpen egin ditu "tasa turistikoak" ezartzearen aurka. Gertaera hori etor bat Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak orain dela hilabete gutxi arte egindako aurrerapenekin, eta alorreko aurreko sailburu Retortillo jaunak aurreratuarekin. Gogora dezagun sailak agindutako txosten batek adierazten zuela proposatutako zerga egonaldi guztietan aplikatuko zela, gurutzaontzietan barne. Era berean, Eusko Jaurlaritzak aurreratu zuen zerga hori hotel eta etxebizitza turistikoetara kargatuko ziela, bezeroak ordaintzen ez bazuen.

Udal gobernua zeukaten eta gobernatzen duten udal taldeek zerga hori sortze aldera aurreko legealdian izandako atzerapenaren ondoren, ikusten dugunez, orain kontseilari berria omen da zerga hori ezartzeko oztopoa.

Gai horretako zinegotzi ordezkariak hilabete honetako batzordean esan zuenez, Turismoko Euskal Mahaiaren azken bileran hainbat puntu eman zituela udal gobernuak gai hori arautzen duen lege zirriborroaren garatzearen inguruan. Hala ere, sailburu berriak gaian duen jarreragatik, kontrako norabidean urratsak nola egiten ari diren erakusten du.

Horregatik, gure iritziz, premiazkoa eta beharrezkoa da, gai honi dagokionez, osoko bilkuran hartutako erabakiak betetzea, zerga hori Donostian errealitate izan dadin. Hona hemen gure

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari Udalbatzak 2019ko apirilaren 11ko osoko bilkuran onartutako erabakia betetzea. Horrela, Eusko Jaurlaritzari eskatu behar dio arinago kudeatzeko, urtea amaitu baino lehen, turismo egonaldien

ondorioz udal diru kutxetan sarrerak lortu ahal izateko beharrezko araudia onartu eta ezar dadin.

Haizea Garay Gallastegui,  
Elkarrekin Donostiako zinegotzia.